Deialdia, oposizio bidez ITZULTZAILEA izateko 4 lanpostu betetzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura.

1. PROBA – 1. ARIKETA – TEST MOTAKO GALDERAK

1. PROBA – 1. ARIKETA – TEST MOTAKO GALDERAK

1. Traduktologia itzulpena aztertzen duen diziplina da. Zein da haren helburua?

a) Itzulpen-prozesua gauzatzea.

b) Itzultzen jakitea.

c) Itzulpen-praktikaren gaineko jakintza eskuratzea.

d) Itzulpenaren ezagutza operatiboaz jabetzea.

2. Zer da itzulpena Vinay-rentzat eta Darbelnet-entzat?

a) Testu bateko mezuen zentzua beste hizkuntza batera transmititzea.

b) A hizkuntzatik B hizkuntzara pasatzea errealitate bera adierazteko.

c) Jatorri-hizkuntzako testua helburu-hizkuntzako testu bilakatzea.

d) Testuinguru sozial batean gertatzen den komunikazio-prozesua.

3. Zein dira itzulpenaren funtsezko hiru bereizgarriak?

a) Hizkuntzen arteko eragiketa, interpretazio-prozesua eta aldebiko komunikazioa.

b) Hizkuntza-zeinuen esanahia ematea, komunikazio-egintza eta hizkuntzen gaineko ezagutza.

c) Testuaren interpretazioa, adimen-prozesua eta interpretazio-prozesua.

d) Komunikazio-egintza, testuen arteko eragiketa eta adimen-prozesua.

4. Nida-ren arabera, zer lehenetsi behar du itzultzaileak?

a) Nagusiki, testuinguruaren koherentzia.

b) Nagusiki, baliokidetasun dinamikoa.

c) Nagusiki, hartzaileek erabiltzen eta onartzen dituzten esamoldeak baliatzea, tradizioz prestigio handiagoa duten esamoldeen gainetik.

d) Bai testuinguruaren koherentzia, bai baliokidetasun dinamikoa, bai hartzaileek erabiltzen eta onartzen dituzten esamoldeak baliatzea.

5. Vinay-rentzat eta Darbelnet-entzat, itzulpen-prozedura teknikoak dira:

a) Mailegua, kalkoa, itzulpen literala, transposizioa, modulazioa, baliokidetza eta egokitzapena.

b) Mailegua, konpentsazioa, itzulpen literala, transposizioa, modulazioa, disoluzioa eta anplifikazioa.

c) Mailegua, kalkoa, anpliazioa, artikulazioa, gramatikalizazioa, orokortzea eta bariazioa.

d) Lerro arteko itzulpena, itzulpen literala, itzulpen filologikoa, itzulpen ekifuntzionala, itzulpen heterofuntzionala, itzulpen baliokidea eta itzulpen metatestuala.

6. Zizeronek itzulpengintzaren funtsezko eztabaida bati hasiera eman zion, aipatu zuenean:

a) *Verbum pro verbo* itzuli behar dela.

b) Ez dela itzuli behar *verbum pro verbo*.

c) Itzultzaileak erabateko fideltasuna gorde behar duela.

d) *Traduttore, traditore*.

7. Baliokidetasunarekin loturiko testu hauetako zein EZ da zuzena?

a) Nord-en arabera, baliokidetasuna funtsezkoa da Skopos teorian, itzulpen orok iturburuko eta helburuko testuen arteko baliokidetasun funtzionala bilatzen baitu.

b) Hatim-en eta Mason-en ustez, baliokidetasunaz hitz egitea baino erabilgarriagoa da egokitasunaz hitz egitea, kasuan kasuko itzulpen lanaren ezaugarrien eta erabiltzaileen beharren arabera epaitzen ahal delako.

c) Manipulazioaren eskolako autoreen ustez, itzulpenaren baliokidetasunaz hausnartzea baino hobe da itzulpenen alderdi ideologikoei eta botere harremanei erreparatzea.

d) Azken urteetako lan ildo batzuek beharrezkotzat dituzte itzultzaileen esku-hartzea eta manipulazioa eta, orobat, aldarrikatu egiten dituzte itzulpenaren eta jatorrizko testuaren arteko diferentziak. Horien adibide dira itzulpenaren teoria postkolonialak eta feministak.

8. Itzulpena da testuinguru sozial jakin batean gertatzen den komunikazio prozesu bat. Hautatu definizio horren egilea(k):

a) Vinay eta Darbelnet

b) Nida eta Taber

c) Nord

d) Hatim eta Mason

9. Itzulpena da komunikazio ekintza bat non funtzionaltasuna funtsezko irizpidea den. Hautatu definizio horren egilea(k):

a) Vinay eta Darbelnet

b) Nida eta Taber

c) Nord

d) Hatim eta Mason

10. Esaldi hauetako zein EZ da zuzena?

a) Erdi Aroan, dikotomia argia zegoen: erlijio testuen itzulpenak hitzez hitzekoak izaten ziren, eta testu ez-sakratuenak, aldiz, libreak.

b) Errenazimentuan, Luteroren eraginagatik, zentzuz zentzuko itzulpena erabat gailendu zen mota orotako itzulpenetan.

c) XVII. mendean, arrakasta handia izan zuten *belles infidèles* erako itzulpenek. Halere, XVII. mendearen erditik aitzina, fideltasun handiagoa eskatzen zuen korronte kritikoa hasi zen.

d) XVIII. mendean, Alemaniako arrazionalismoaren ondorioz, berriz ere indartu zen hitzez hitzeko itzulpena.

11. Konferentzia-interpretazioa, noiz hasi zen?

a) 1951n, Ikatzaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoa sortzean.

b) 1945ean, Nazio Batuen Erakundea sortzean.

c) 1919ko Parisko Bake Konferentzian.

d) 1945-46ko Nurenbergeko epaiketetan.

12. Frankismoaren ondotik, Nafarroako erakunde publikoetan noiz hasi ziren interpreteak lanean lehen aldiz?

a) 1974an.

b) 1979an.

c) 1986an.

d) 1992an.

13. Interpretazio teknika ohikoenak dira:

a) Esan ostekoa, aldiberekoa, xuxurlaketa, ikusizkoa.

b) Esan ostekoa, aldiberekoa, automatikoa, entzunezkoa.

c) Aldiberekoa, entzunezkoa, xuxurlaketa, intuiziozkoa.

d) Esan ostekoa, laburpenezkoa, xuxurlaketa, ikusizkoa.

14. Euskalterm datu-basean ponderazio-markak erabiltzen dira. Zer esan nahi du termino baten ondoan "4" ageri bada?

a) Terminologia Batzordeak onartzen ez duen terminoa dela.

b) Termino onartua dela baina ez dela lehenetsia, beste bat gomendatzen delako.

c) Termino normalizatu eta gomendatua dela.

d) Termino behin-behinean normalizatua/gomendatua dela, Terminologia Batzordearen onespenaren zain.

15. Itzulpen automatikoaren sistemek, oro har, mugak dituzte. Zer parametro EZ da erabiltzen, besteak beste, itzulpen automatikoarekin egindako itzulpenaren kalitatea neurtzeko?

a) Azkartasuna.

b) Ulergarritasuna.

c) Estiloa.

d) Doitasuna.

16. Hauta ezazu hutsunea betetzeko falta den hitza:

"..... bat hizkuntza bateko zatien bilduma da; zati horiek irizpide linguistiko baten arabera hautatu eta ordenatzen dira, hizkuntzaren lagin edo aldaera moduan erabiltzeko".

a) Hiztegi

b) Glosario

c) Corpus

d) Lexiko

17. Zer da XLIFF bat?

a) Segmentazio-erregelak trukatzeko formatu estandar bat.

b) Itzulpen-proiektuak trukatzeko formatu estandar bat.

c) Itzulpen-memoriak trukatzeko formatu estandar bat.

d) Datu-base terminologikoak trukatzeko formatu estandar bat.

18. Zein EZ da *Orotariko Euskal Hiztegia*ren izaera?

a) Historikoa.

b) Arauemailea.

c) Deskriptiboa.

d) Literarioa.

19. Noizko testuak biltzen ditu Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa (EEBS) egitasmoak?

a) XX. mendekoak.

b) XX. eta XXI. mendekoak.

c) XX. mendearen lehen erdialdekoak.

d) XX. mendearen bigarren erdialdekoak.

20. Euskal Corpus Onomastikoa egitasmoan biltzen dira...

a) ponte-izenak, deiturak, toponimoak eta exotoponimoak.

b) kale-izenak, ponte-izenak, odonimoak eta hagionimoak.

c) deiturak, hipokoristikoak, kale-izenak eta oronimoak.

d) pertsona-izenak, deiturak, odonimoak eta astroen izenak.

21. Zer izaera du *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (EGLU)* lanak?

a) Historikoa.

b) Arauemailea.

c) Deskriptiboa.

d) Literarioa.

22. Nork kudeatzen du Lexikoaren Behatokiaren Corpusa?

a) Elhuyarrek.

b) IXA taldeak.

c) UZEIk.

d) Euskaltzaindiak.

23. Hiztegi eta corpus hauetako bat Euskal Herriko Unibertsitatearena da. Zein?

a) Ereduzko Prosa Gaur.

b) Hiztegi Batu Oinarriduna.

c) Lexikoaren Behatokiaren Corpusa.

d) XX. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa.

24. Zer motatako lokailuak dira *bederen* eta *orobat*?

a) Emendiozkoak

b) Hautakariak.

c) Aurkaritzakoak.

d) Ondoriozkoak.

25. Zer motatako lokailuak dira *aitzitik* eta *haatik*?

a) Emendiozkoak

b) Hautakariak.

c) Aurkaritzakoak.

d) Ondoriozkoak.

26. Testuan esandakoari buruz igorleak hartzen duen jarrera eta inplikazioa testuaren egokitzapen-prozeduretako bat da. Nola esaten zaio?

a) Erregistroa.

b) Alborakuntza.

c) Modalizazioa.

d) Deixia.

27. Esaldi hauetako bakarra da zuzena. Zein?

a) Aroztegiko bordako anai zaharrena Ameriketara joan zen.

b) Frantziskotarren ordeneko fraide gutxi gelditzen da Arantzazun.

c) Zenbait pertsonek uste dute mendia berena bakarrik dela.

d) Familiako festara etorri ziren aitona-amonak, seme-alabak eta lehengusinak.

28. Euskalkien arabera, zenbait aditz *du/dio* erregimenekoak dira. Zein?

a) Deitu, entzun, lagundu.

b) Eutsi, sinetsi, borrokatu.

c) Zapaldu, bakean utzi, eraso.

d) Ohartarazi, eutsi, jaregin.

29. Zein esaldi da zuzena?

a) Lanean hasitzen zarenean konturatuko zara zer den goiz jaikitzea.

b) Hesten diren denda txikiak ez dira etorkizunean berriz irekitzen.

c) Eskolatik irtetzen zarenerako atean izango naiz.

d) Ez banauzu bakean utzitzen, salatuko zaitut.

30. Esaldi hauetako bakarra da zuzena. Zein?

a) Ez dezazuela aulkirik hartu agindu dizuete.

b) Gazta bat ekar iezadazula nahi dut.

c) Ez diezaiozu hainbeste diru eman semeari.

d) Etxea garbi ezazula agindu zizun amak.

31. Zein esalditan erabili da ***aldatu* aditza modu desegokian?**

a) Armairua tokiz aldatu dut etxean.

b) Aurten hirugarrenez aldatu naiz etxez.

c) Liburuak tokiz aldatzen eman zuen egun osoa.

d) Atzo zinemara joatekoa nintzen, baina iritziz aldatu dut.

32. Zein esalditan erabili da *anitz* hitza modu desegokian?

a) Anitz jende bildu zen Haritxelarren hiletan.

b) Jende anitza elkartzen da sanferminetan.

c) Urte anitzez izan da alkate herrian.

d) "Eskerrik anitz" ihardetsi zion amatxik ilobari.

33. Zein esalditan erabili da *balore* hitza modu desegokian?

a) Balore-merkatua aldakorra da oro har.

b) Balore handiko aurkikuntzak egin dituzte berriki Egipton.

c) Baloreak eta obligazioak eskuratu zituen Burtsan.

d) Balorea behar da Hiru Handiak mendi-proba egiteko.

34. Esaldi hauetako bat EZ da kalkoa. Zein?

a) Aipatu duzun hori bere egunean erabakitako kontua da.

b) Beste egunean hitz egin nuen bizilagunen batzarrean.

c) Urteak eman dituzte eztabaidan konponbidea lortu arte.

d) Faborito bezala ikusten dute kazetariek Olabarria.

35. Esaldi hauetako bakarra da zuzena. Zein?

a) Bidasoako Bide Berdea iaz mustu zuten.

b) Mendigorriako Udala Erriberriko merindadean dago.

c) Azpeitiako zezen plaza ezaguna da Euskal Herrian.

d) Atarrabiako Udala eremuz oso txikia da.

36. Loiolan elkartu dira...

a) Azpeiti eta Azkoitiako alkateak.

b) Azpeitia-Azkoitietako alkateak.

c) Azpeiti-Azkoitietako alkateak.

d) Azpeitiako eta Azkoitiko alkateak.

37. Adiera bat baino gehiago du *burutu* aditzak. Zein hartuko genuke kalko moduan?

a) Gure herrian burutu berri diren ekintzak ez dira egunerokoak.

b) Azak ederki burutzen dira eguteran dugun baratzean.

c) Azkenean burutu dugu lana. Bazen garaia!

d) Abenduan hasi eta ekainerako burutu nahi dugu oposizioa.

38. Esaldi hauetako bat okerra da. Zein?

a) Kontinenteen % 5 izotza da.

b) Erregaiaren prezioak % 6an igo dira.

c) Erregai-andela % 1ean nuen gasolindegira iritsi nintzenean.

d) Irabazien % 25 kentzen dit urtero Ogasunak.

39. Izen hauetatik zein EZ da *emendakin* hitzaren sinonimo?

a) Gehigarri.

b) Eranskin.

c) Zuzenketa.

d) Gaineratze.

40. Esaldi hauetako bakarra da zuzena. Zein?

a) Lan horrez mintzatu ginen atzo goizean.

b) Ez dira adiskide horiez oroitu.

c) Politikari honezaz ez da gauza onik entzuten.

d) Liburuaren hasiera ederra da; horretaz, segituko dut irakurtzen.

41. Esaldi hauetako bakarra da zuzena. Zein?

a) Bi orduoro hartzen du pilula.

b) Bi ordurik behin edaten du ura.

c) Bi orduero etortzen da erizaina gelara.

d) Bi orduro pasatzen da autobusa herritik.

42. Esaldi hauetako bakarra da zuzena. Zein?

a) Gizarte laguntzailea etorri da goizean etxera.

b) Nukleo-zentralak behar dira energia ekoizteko.

c) Gorri koloreko jertsea erosi zuen dendan.

d) Burokrazia administratiboa gero eta handiagoa da.

43. Jarraian zenbait herritar-izen ageri dira. Zein izen-segida da zuzena?

a) Katalana - eurasiarra - alemandarra.

b) Bretoia - portugesa - bereberea.

c) Portugaldarra - espainola - grekoa.

d) Egipziarra - germaniarra - nederlandarra.

44. Zein esalditan daude izen bereziak zuzen idatzita?

a) Burundako Isabeleri saria eman dio alkateak.

b) Unaiek lortu du azkenean txapela pilota-txapelketan.

c) Euskaltzaindiatik etorri dira liburuz zamatuta.

d) Bertizaranako lurretan dago Bertizko jaurerria.

45. Leku-izen ofizial batzuetan zehar-marra edo marratxoa ageri da. Zein dago oker idatzita?

a) Olazti / Olazagutía.

b) Amaiur / Maya.

c) Puente la Reina-Gares.

d) Beintza-Labaien.

46. Zein mendetan jasan zuen euskarak hiztun eta lurralde galerarik handiena Nafarroan?

a) XVI. mendean

b) XVIII. mendean

c) XIX. mendean

d) XX. mendean

47. Zein da Euskararen Adierazleen Sistemaren helburua?

a) Nafarroako euskararen egoeraren eta bilakaeraren berri jaso eta ezagutzera ematea.

b) EAE eta Nafarroako euskararen egoeraren eta bilakaeraren berri jaso eta ezagutzera ematea.

c) Euskal Herri guztiko euskararen egoeraren eta bilakaeraren berri jaso eta ezagutzera ematea.

d) Gizartearen alor desberdinetan une jakin bateko euskararen garapena zehaztasunez azalduko duen adierazle egitura bat sortzea.

48. 2016ko VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, euskaldunen eta euskaldun hartzaileen kopurua zenbatekoa da Nafarroan?

a) % 12,9

b) % 23,2

c) % 25,7

d) % 33,4

49. 2016ko VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, Iruñeko 16 urte edo gehiagoko biztanleen zer ehuneko da euskalduna edo euskaldun hartzailea?

a) % 10,5 euskaldunak eta %11,4 euskaldun hartzaileak

b) % 10,5 euskaldunak eta % 21,9 euskaldun hartzaileak

c) % 15,1 euskaldunak eta % 5,5 euskaldun hartzaileak

d) % 5,5 euskaldunak eta % 21,9 euskaldun hartzaileak

50. Zer da soziolinguistika?

a) Hizkuntzaren eta gizartearen arteko elkarreragina aztertzen duen diziplina.

b) Hizkuntzak biziberritzeko prozesuak eragiteko teknika multzoa.

c) Hizkuntzaren eta kulturaren arteko eragina aztertzen duen diziplina.

d) Hizkuntzaren egoera sozialak deskribatzen dituen hizkuntzalaritzaren eskola.

51. Euskal Herrian soziolinguistikaren arloan egin izan diren teorizazio eta lanak, batik bat,

a) Estatusari begira garatu dira.

b) Corpusari begira garatu dira.

c) Hizkuntza-aldakortasunari begira garatu dira.

d) Ikerketa linguistikoari begira garatu dira.

52. Zein da gaztelaniazko "preceptivo" hitzaren euskarazko ordaina?

a) baldintzazkoa

b) hautazkoa

c) ustezkoa

d) nahitaezkoa

53. Zein da euskarazko "zehatu" hitzaren ordaina gaztelaniaz?

a) pormenorizar

b) sancionar

c) deducir

d) socavar

54. Beheko testuaren itzulpen zuzenena hauta ezazu.

Corresponde al secretario/a extender certificados de los acuerdos adoptados por los órganos de la asociación, con el visto bueno del presidente/a.

a) Idazkariaren eginkizuna da elkarteko organoek lehendakariaren oniritziarekin hartutako erabakien ziurtagiriak egitea.

b) Idazkariaren eginkizuna da lehendakariak elkarteko organoen oniritziarekin hartutako erabakien ziurtagiriak egitea.

c) Idazkariaren eginkizuna da lehendakariak hartutako erabakien ziurtagiriak egitea, elkarteko organoen oniritziarekin.

d) Idazkariaren eginkizuna da elkarteko organoek hartutako erabakien ziurtagiriak egitea, lehendakariaren oniritziarekin.

55. Beheko testuaren itzulpen zuzenena hauta ezazu.

A pesar de las quejas, desde enero se reducirá la periodicidad de las inspecciones.

a) Urtarriletik aitzina, maizago eginen dituzte ikuskapenak, kexak jaso arren.

b) Urtarriletik aitzina, maizago eginen dituzte ikuskapenak, kexarik ez jasotzearren.

c) Urtarriletik aitzina, ikuskapenak ez dituzte orain bezain maiz eginen, kexak jaso arren.

d) Urtarriletik aitzina, ikuskapenak ez dituzte orain bezain maiz eginen, kexarik ez jasotzearren.

56. Beheko testuaren itzulpen zuzenena hauta ezazu.

Zorrak kitatu ondoren, gerakinik izanez gero, gerakin hori erabiliko da entitatearen irabazi-asmorik gabeko izaerarekin bat datozen xedeetarako.

a) Una vez extinguidas las deudas, y si existiese remanente, este se destinará para fines que no desvirtúen el carácter no lucrativo de la entidad.

b) Una vez extinguidas las deudas, salvo que existiese remanente, este se destinará para fines que no desvirtúen el carácter no lucrativo de la entidad.

c) Una vez extinguidas las deudas, salvo que existiese remanente, este se destinará para fines que no desvirtúen el carácter subsidiario de la entidad.

d) Una vez extinguidas las deudas, y si existiese remanente, este se destinará para fines que no desvirtúen el carácter subsidiario de la entidad.

57. Según la RAE, ¿cuál de estas frases es incorrecta?

a) Las ventanas y balcones estaban herméticamente cerrados.

b) Hay veces en que un tobillo o una muñeca rotos no muestran alteración exterior.

c) No podrá participar en la prueba sin los preceptivos autorización y control médicos.

d) El ascensor llegó abarrotado desde los sótanos primero y segundo.

58. ¿Cuál de las siguientes frases es correcta?

a) Los plazos son del 2 al 7 de noviembre, ambos inclusives.

b) La metereología es la ciencia que estudia el clima.

c) ¿Te comistes todos los pasteles que te traje?

d) Quizás vuelva mañana.

59. ¿Cuál de las siguientes palabras está mal acentuada?

a) Guión.

b) Prístino.

c) Gragea.

d) Espécimen.

60. ¿Cuál de las siguientes palabras NO admite doble acentuación?

a) Omóplato / Omoplato.

b) Cardíaco / Cardiaco.

c) Périto / Perito.

d) Cénit / Cenit.

61. Cuando hablamos de antropónimos, nos referimos a:

a) Nombres históricos de persona.

b) Nombres vulgares de persona.

c) Nombres propios de persona.

d) Nombres antiguos de persona.

62. Zer motatako hizkuntza da gaztelania?

a) Bakartzailea

b) Malgukaria

c) Eranskaria

d) Bihurkaria

63. *Nafarroa. Toponimia eta Mapagintza* lanak zer arautu zuen?

a) Nafarroako toponimia guztia.

b) Nafarroako toponimia txikia.

c) Nafarroako toponimia nagusia.

d) Nafarroako toponimia eta kale izenak.

64. Euskararen Nafar Kontseilua Nafarroako Gobernuko erakunde bat da. Zer departamenturen egituran dago?

a) Hezkuntza Departamentuarenean.

b) Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuarenean.

c) Lehendakaritza, Barne eta Justiziako Departamentuarenean.

d) Kultura, Kirol eta Gazteriako Departamentuarenean.

65. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, gaur egun, honela argitaratzen da:

a) Ele biko edizio bakarrean: ezkerreko zutabea gaztelaniazkoa eta eskuinekoa euskarazkoa.

b) Bi edizio bereizitan: bata gaztelaniazkoa eta bestea euskarazkoa. Nolanahi ere, euskarazkoan eduki batzuk gaztelaniaz argitaratzen dira.

c) Bi edizio bereizitan: bata erabat gaztelaniazkoa eta bestea erabat euskarazkoa.

d) Bi edizio bereizitan: bata gaztelaniazkoa eta bestea euskarazkoa, baina eremu ez-euskaldunerako iragarkiak gaztelania hutsean argitaratzen dira.

66. Zer zerbitzu ditu Euskarabideak?

a) Euskararen Egiaztapenen eta Prestakuntzaren Zerbitzua, eta Euskararen Plangintzaren Zerbitzua.

b) Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua, eta Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua.

c) Hizkuntza Baliabideen eta Itzulpenaren Zerbitzua, eta Euskararen Normalizaziorako Zerbitzua.

d) Ikerketa Soziolinguistikoen Zerbitzua, eta Euskararen Sustapenaren, Plangintzaren eta Prestakuntzaren Zerbitzua.

67. Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretuaren funtsezko helburua da, besteak beste:

a) Nafarroa osoan herritarrei zerbitzua bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan eman ahal izatea.

b) Eremu euskaldunean eta mistoan bi hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izatea lan-hizkuntza moduan.

c) Eremu ez-euskaldunean, gauzagarri egitea herritarrek duten eskubidea euskaraz nahiz gaztelaniaz zuzentzeko administrazio publikoengana.

d) Euskararen normalizazioa bermatzea zerbitzu zentraletan.

68. Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen arabera, nork du administrazio publikoekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eta berek hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea?

a) Eremu euskalduneko herritarrek.

b) Eremu euskalduneko eta eremu mistoko herritarrek.

c) Nafarroa osoko herritarrek.

d) Inork ere ez du eskubide hori Nafarroan.

69. Gaur egun Nafarroan indarrean den Euskararen Plan Estrategikoa zenbatgarrena da?

a) Lehenengoa.

b) Bigarrena.

c) Hirugarrena.

d) Laugarrena.

70. Europar Batasuna (EB) eta euskara. Esaldi hauetako zein da zuzena?

a) EBko erakundeetan, soilik EBko hizkuntza ofizialak erabil daitezke eta, beraz, ezin da euskara erabili.

b) EBko erakundeek agirietan euskara erabil dezakete baina, horretarako, Espainiako Gobernuak eman behar ditu itzulpenak.

c) Eskualdeetako Lantaldearen bilkuretan euskara erabiltzeko protokolo bat dago eta, aldez aurretik eskatuta, euskaratik eta euskararako interpretazioa izaten da.

d) Hizkuntzen Europako Egunean, eskualdeetako hizkuntzak erabil daitezke Europako Parlamentuan, euskara barne.

71. Eremu euskaldunean, derrigorrezko hezkuntza mailetan, nahitaezkoa da euskararen eta gaztelaniaren irakaskuntza?

a) Bai.

b) Ez.

c) Mailaren arabera.

d) Soilik gaztelaniarena da nahitaezkoa.

72. Nork prestatu eta zuzendu zuen Euskaltzaindiaren ardurapean gauzatu zen Erizkizundi Irukoitza hizkuntza-inkesta?

a) Arturo Campionek.

b) Orixek.

c) Polikarpo Iraizozek.

d) Resurreccion Maria Azkuek.

73. Zein izan zen Euskaltzaindiaren lehen burua?

a) Julio Urkixo.

b) Resurreccion Maria Azkue.

c) Arturo Campion.

d) Sebero Altube.

74. Zer urtetan egin zen Euskaltzaindiaren Arantzazuko lehen biltzarra?

a) 1920an.

b) 1956an.

c) 1968an.

d) 1979an.

75. Euskaltzaindiak kanpaina ezagun bat antolatu zuen 1978an. Zein?

a) Euskaraz eta kitto!

b) Segi aitzina!

c) Bai euskarari!

d) Ekin eta jarrai!

76. Euskaltzaindiak bi sail akademiko nagusi ditu. Zein?

a) Hiztegia eta Literatura.

b) Sustapena eta Ikerketa.

c) Ekin eta Jarrai.

d) Iker eta Jagon.

77. Zein dira Nafarroako Foru Komunitatean mintzatu izan diren euskalkiak, 1863ko Bonaparteren mapa ezagunaren arabera?

a) Gipuzkera, goi nafarrera hegoaldekoa, goi nafarrera iparraldekoa, behe nafarrera ekialdekoa, behe nafarrera mendebaldekoa, zuberera, lapurtera.

b) Gipuzkera, goi nafarrera, baztanera, lapurtera, aezkera, zaraitzuera, erronkariera.

c) Gipuzkera, goi nafarrera hegoaldekoa, goi nafarrera iparraldekoa, Burundako euskara, Itzarbeibarko euskara, aezkera, zaraitzuera, erronkariera.

d) Erdialdeko euskara, nafarrera, nafar-lapurtera.

78. Zein dira euskararen literatura euskalkiak?

a) Bizkaiera, gipuzkera, lapurtera, behe nafarrera eta zuberera.

b) Gipuzkera, lapurtera, nafarrera eta zuberera.

c) Arabako euskara, bizkaiera, gipuzkera, lapurtera eta behe nafarrera.

d) Bizkaiera, gipuzkera, lapurtera, nafarrera eta zuberera.

79. Jarraian zenbait pertsonaia ageri dira. Horietako zein har daiteke euskal dialektologia modernoaren sortzailetzat?

a) Manuel Larramendi.

b) Arturo Campion.

c) Arnaut Oihenart.

d) Luis Luziano Bonaparte.

80. «Badaquit halaber ecin heda naitequeyela euscarazco minçatce molde guztietara. Ceren anhitz moldez eta differentqui minçatcen baitira euscal herrian. Naffarroa garayan, Naffarroa beherean, Çuberoan, Lappurdin, Bizcayan, Guipuzcoan, Alaba-herrian, eta bertce anhitz leccutan». Nork esan zuen hori?

a) Pedro Axularrek.

b) Joanes Leizarragak.

c) Etxeberri Sarakoak.

d) Ivan Tartasek.

Deialdia, oposizio bidez ITZULTZAILEA izateko 4 lanpostu betetzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura.

1. PROBA – 2. ARIKETA –GALDERA LABURRAK

1. PROBA – 2. ARIKETA - GALDERA LABURRAK

1. Ikus-entzunezko itzulpen motak: izenda itzazu hiru.

2. Errenazimentuan erlijio gerrekin batera itzulpen gerrak izan direla esan ohi da. Erreformako korronteek zein itzulpen eredu proposatzen zuten? Aipatu 2 ezaugarri.

3. Zein dira Mendebaldean itzulpengintzari buruzko gogoetan historian zehar izan diren bi eztabaidagai nagusiak?

4. XVII. eta XVIII. mendeetan eredu jakin bat nagusitu zen testu profanoetan. Itzultzaileek nahi besteko askatasuna hartzen zuten itzultzen zituzten lanak edertzeko. Nola izendatu izan da itzulpen eredu hori?

5. Manipulazioaren eskolaren barnean, Even-Zoharrek eta Touryk teoria bat garatu zuten. Zein da teoria horren izena?

6. Interpretazio-teknika nagusiak. Aipa itzazu lau.

7. Xuxurlaketa. Zer da, zer ezaugarri ditu eta noiz erabiltzen da, itzulpenaren eta interpretazioaren testuinguruan?

8. Nola du izena hizkuntza mailako galderei erantzuteko Euskaltzaindiak Interneten eskaintzen duen baliabideak?

9. Zer da EIZIE?

10. Aipa ezazu gaur egun euskaraz erabili ohi diren zuzentzaile automatikoetako baten izena.

11. Izenda itzazu euskarazko bi corpus.

12. Aipa itzazu euskarazko 3 lokailu mota eta eman bi adibide bakoitzetik.

13. Ahozko komunikazioa vs komunikazio idatzia: esan itzazu bien arteko 3 desberdintasun.

14. Euskaraz, esanahiaren arabera, zein dira perpaus motak?

15. *-sa/-tsa* atzizkia. Esan ezazu hitz hauetako bakoitza zuzena den euskara batuan. Erantzun BAI ala EZ bakoitzaren ondoan:

printzesa	
alkatesa	
irakaslesa	
alarguntsa	

16. Zer da hizkuntza batek beste hizkuntza baten hitz edo osagai bat bereganatzea?

17. Zer da *-a* itsatsia? Eman bi adibide.

18. Irakur itzazu esaldi hauek eta azpimarra ezazu zein diren hitz okerrak.

Hizkuntza bat baino gehiago hitzegiten da Valentzian.
Hainbat pertsonek marraztu dute kaleko hormairudia.
Hizkuntz-arazoak asko izan ohi dira epaitegietan.
Ordenean jarri behar dituzu liburuak eta koadernoak.

19. Elkarren segidan dauden bi bokal SILABA banatan ahoskatzea: esan zer den eta jarri euskarazko bi adibide.

20. Aditz-izena egiteko euskaraz bi molde erabiltzen dira: *-tzen* eta *-ten*. Adierazi aditz-izen hauek zuzenak diren. Erantzun BAI ala EZ bakoitzaren ondoan.

hezten	
irtetzen	
izaiten	
nahastutzen	
ohartzen	
utzitzen	
belzten	

21. Hitz-bikote hauetan azpimarratu hitz zuzena:

erreportaia – erreportajea

paisaia – paisajea

portzentaia – portzentajea

sabotaia – sabotajea

xantaia – xantajea

pertsonaia – pertsonajea

22. Ezezko esaldietan, *batere* eta *bat ere* ez dira baliokideak. Egin esaldi bana horiek erabiliz.

23. Herri-izen hauen gaztelaniazko ordainak eman itzazu:

Alesbes	
Luzaide	
Ledea	
Nabaskoze	

24. Herri-izen hauen euskarazko ordainak eman itzazu:

Peralta	
Yesa	
Gallués	
Monreal	

25. Herri-izen hauen bukaeran ageri den *-a* berezkoa da?

Erantzun BAI ala EZ bakoitzaren ondoan.

Abaurregaina	
Artaxoa	
Basaburua	
Donamaria	

26. Zer da diglosia?

27. Egoera diglosikoak dinamikoak dira. Zer esan nahi du horrek?

28. Xabier Erizek 1997an *Nafarroako Euskararen Historia Soziolinguistikoa (1863-1936)* aurkeztu zuen. Zer aztertu zuen lan horretan?

29. Esan ezazu zer egin daitekeen testu honen komunikagarritasuna hobetzeko, esaldia zatitu gabe.

"Edonola ere, neurri jakin bat gehiegizkoa den ala ez jakiteko, neurri horren kostuaz eta balizko onuradunen kopuruaz gain, neurri hori ez hartzeak ezintasunen bat duten pertsonak bazter utziko lituzkeen, neurria hartu behar duen pertsonaren edo erakundearen egitura eta ezaugarriak zein diren eta finantzazio ofiziala edo bestelako laguntzarik lor daitekeen ere aztertu behar da".

30. Termino juridiko-administratibo hauek itzuli behar dituzu gaztelaniatik euskarara.

quebrantar deber de secreto	
delegar el voto	
bienes patrimoniales	
disposición derogatoria	
procedimiento sancionador	

31. Hiztegi juridiko-administratiboko hitz hauek itzuli behar dituzu euskaratik gaztelaniara.

arau-hauste astun	
delitu-zantzu	
administrazio-prozedura erkide	
aurkaratu	
lotesle	

32. Indica si estas palabras son correctas conforme a la RAE. Escribe SÍ o NO junto a cada una.

Amábais	
Dieciséis	
Heróico	
Truhán	
Fe	
Fué	
Agusto	
Injerencia	
Revocar	
Teorico-práctico	

33. Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak, zer dio euskarari buruz?

34. Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna. Noiz onetsi zen eta noiz berretsi zuen Espainiak?

35. Euskarari buruzko Foru Legea 1986ko abenduaren 15ean onetsi zen. Ordutik hona zenbait aldaketa egin zaizkio legeari, azkenak 9/2017 Foru Legearen bidez. 3 aldaketa nagusi eragin zituen. Esaguzu zeintzuk.

36. Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen arabera, leku-izen ofizialak ezartzeari dagokionez, zein da udalen eskumena?

37. Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua Nafarroako Gobernuko zein departamentutan dago?


38. Nafarroako hezkuntza sistemako zer hizkuntza eredutan ikasten da euskara edo euskaraz?

39. Reescribe este texto con un lenguaje inclusivo y no sexista, teniendo en cuenta que se refiere tanto a profesoras como a profesores. Evita el uso de los siguientes recursos: arroba o similares (vecin@s, vecinxs...), duplicar palabras o artículos (vecinas y vecinos/ las y los vecinos...) o el uso de la palabra "persona" (personas vecinas), o el uso del femenino como genérico (las vecinas).

La actividad está dirigida a profesores de toda Navarra y tendrán prioridad los que no hayan participado en actividades similares durante este curso. En cualquier caso, si están interesados en el tema, pueden descargar los materiales del curso sin necesidad de inscribirse en él.

40. Nafarroan, XIX. mendearen bigarren erdialdean, elkarte bat nabarmendu zen euskararen defentsan. Esaguzu zein izan zen.

TOKIRIK GABE GELDITU BAZARA, HEMEN IDATZI ERANTZUNAK. GALDERAREN ZENBAKIA ADIERAZI.



Deialdia, oposizio bidez ITZULTZAILEA izateko 4 lanpostu betetzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura.
(Deialdia Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak emandako maiatzaren 31ko 1264/2018 Ebazpenaren bidez onetsi zen eta Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 2018ko ekainaren 20ko 118. zenbakian argitaratu)

Oposizioko 1. probako 1. ariketa, abenduaren 15ean egindakoa:

Baliozko erantzunen plantilla

Galdera zk.	Baliozko erantzuna	Galdera zk.	Baliozko erantzuna
1	c	41	b
2	b	42	d
3	d	43	c
4	d	44	d
5	a	45	c
6	b	46	c
7	a	47	c
8	d	48	b
9	c	49	a
10	b	50	a
11	c	51	a
12	b	52	d
13	a	53	b
14	d	54	d
15	a	55	c
16	c	56	a
17	b	57	c
18	b	58	d
19	a	59	a
20	a	60	c
21	c	61	c
22	d	62	b
23	a	63	b
24	a	64	b
25	c	65	b
26	c	66	b
27	d	67	c
28	a	68	a
29	b	69	a
30	a	70	b
31	d	71	a
32	b	72	d
33	b	73	b
34	c	74	c
35	d	75	c
36	c	76	d
37	a	77	a
38	b	78	a
39	c	79	d
40	c	80	a

Nafarroako Gobernuaren iragarki oholean eta Nafarroako Atariaren webgunean (www.navarra.es) argitaratzeko.

Iruñean, 2018ko abenduaren 18an.

Epaimahaiko idazkaria

Monika Etxebarria